Konparatiboak

BERDINTASUNA:

Osagaiak	Adberbioekin	Adjektiboekin	Kopurua
2	BEZAIN BEZALA	BEZAIN BEZALAKO- (ADINAKO-, BESTEKO-)	ADINA, BESTE, BEZAINBESTE, HAINBAT, BEZAINBAT, LAIN
1	HAIN... HONELA...	HAIN... HONELAKO-...	HAINBESTE...

Nik zuk bezain ondo egin dut.
Nik zuk bezala egin dut.
Hain gaizki ere ez dut egin!
Honela egin behar duzu

Ni zu bezain altua naiz. (Ni zu adinako altua naiz)
Nire etxe zurea bezalakoa da. (Nire etxea zure adinakoa da)
Nik zuk adinako indarra daukat.
Hain leloa ere ez naiz!
Honelako etxean bizi nahi dut

Nik zuk adina (beste...) diru daukat.
Ez dut hainbeste jan

DESBERDINTASUNA:

Adberbioak	Adjektiboak	Kopurua
BAINO ...-AGO	BAINO ...-AGO(A)	BAINO GEHIAGO / GUTXIAGO

Nik zuk baino hobeto egin dut.
Ni zu baino altuagoa naiz.
Nik zuk baino diru gehiago daukat.
Nik zuk baino diru gutxiago daukat.
Nik zuk baino indar handiagoa daukat.

KAUSA-KONPARAKETA:

Adberbioak	ZENBAT ETA ...-AGO, ORDUAN (HAINBAT) ETA ...-AGO
Adjektiboak	ZENBAT ETA ...AGOA(A), ORDUAN (HAINBAT) ETA ...-AGO(A)
kopurua	ZENBAT ETA ... GEHIAGO / GUTXIAGO, ORDUAN ETA ... GEHIAGO / GUTXIAGO

Zenbat eta gehiago hurbildu, orduan eta bero gehiago sentituko duzu.
Zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta neketsuagoa da.

Kontuz, ez nahastu GERO ETA ...-AGO formarekin: Gero eta jende gehiago bizi da hemen.